

GIZONAK BEZALAKO SHERIFFA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Inglaterra, 1215. Bouvineseko guduko porrotaren ondoren, Joan I. Ingalaterra-koa, Joan *Lurgabea* ezizenez ezaguna, sorterrira itzuli zen, baina menpekoek ez zioten harrera onik egin. Eta erregearen kontrako jarrera areagotu egin zen zerga bidegabe bat –beste bat– ezarri zuenean. Ekainean nobleek *Magna Carta* dokumentua sinatu zezan lortu zuten; Ingalaterrako erregearen boterea mugatzen duen dokumentu zaharrena da. Baina irailean Aita Santuak gutuna bertan behera uztea lortu zuen Joanek.

1216ko lehen hilabetetan noble errebolta-riek Rochester eta Londres hartu zituzten, eta Frantziako tronuko oinordeko Luisi Ingalaterrako koroa eskaini zioten. Joani aldeko hiru gotorleku bes-terik ez zitzaizkion geratzen: Windsor, Dover eta Lincoln. Azken horretan emakume bat zegoen gazteluzain: Nicholaa de la Haye.

1150 eta 1156 urteen artean jaio zen Nicholaa. Aita Richard de la Haye zaldun normandiarra zuen, Lincolneko gaztelu-jauna, eta hura hildakoan, gaztelua defendatzea egokitu zitzaion alabari. 1191n gaztelua eraso zutenean, adibidez, Richard de Devizes kronikalari garaikideak jaso zuenez, Nicholaak “emakumea ez balitz bezala pentsatuz, gizonek bezala defendatu zuen Lincolneko gaztelua”.

Magna Cartaren prozesuan ere nabarmendu zen. Joan erregearen aurkakoek gaztelua setiatu zuten 1215ean, baina Nicholaak errenditu gabe eutsi zion eta errebolta-ri buru Gilbert de Ganterekin su-etena sinatzea lortu zuen. 1216an Joanez gaztelua bisitatu zuenean, gazteluko andereak esan zion bere adinean ez zela gai kargua behar bezala betetzeko eta gazteluko giltzak eskaini zizkion; erregeak, ordea, karguan berretsi zuen. Eta ez hori bakarrik; urte bereko urriaren 19an hil zen Joan *Lurgabea*, baina hil baino lehen Lincolnshireko sheriff izendatu zuen de la Haye.

Emakumeak bezalako heriotza

Joanen oinordeko Henrike III.ak 9 urte zituen koroa jantzi zuenean. William Marshal noblearen laguntza izanagatik, aurkakoak agintari berriaren ahuldadeaz baliatu ziren; noble errebolta-riek, Luis frantziar erregegaiaren armadarekin bat eginda, Ingalaterrako gotorlekurik garrantzitsuenetakoa eraso zuten berriro: Lincoln. Gazteluzainak, ohi bezala, gogor eutsi zion, baina errefortzuak beharko zituen setioa gainditzeko. 1217ko maiatzaren 20an erregearen babesle William Marshal setiatzaileak eraso zituen kanpotik, Nicholaa de la Hayek barrutik, eta garaipena lortu zuten. Hori eta Sand-



CHRIS BROADBENT

Lincolneko gaztelua emakume baten ardurapean zegoen 1216an: Nicholaa de la Haye. Urte berean Joan 'Lurgabea' sheriff izendatu zuen.

wicheko itsas guduan lortutako garaipena nahikoak izan ziren Henrike III.a tronuan indartu eta Frantziako nahiz bertako oposizioa uxatzeko.

Henrike III.aren aldekoek laudorioak eskaini zizkieten emakume gazteluzainari, baina beste guztia kendu. Lincolneko garaipena lortu eta lau egunera, sheriff kargua kendu zioten erregearen osaba Salisburyko kondeari emateko. Kondeak, nonbait, ez zuen nahikoa horrekin eta de la Hayeren lurra eta gaztelua ere nahi zituen. Beste 9 urte eman zituen Nicholaak gotorlekua defendatzen, baina ez zuen berriro errefortzurik ez laudoriorik izan. 1226an amore eman zuen eta handik lau urtera hil zen. ■



UCL

Aurpegi britainiarrik zaharrena

1903an 10.000 urteko giza eskeleto bat topatu zuten Gough kobazuloan, Cheddarren, Ingalaterrako hego mendebaldean. Mende bat pasatxo geroago, Londresko Historia Naturaleko Museoko zientzialariek Cheddarreko gizakiaren DNA egoera oso onean ateratzea lortu dute eta horrek gizon hari buruzko informazio genetiko asko ekarri du, bes-

teak beste, azalaren, begien edo ilearen kolorea. Hala, indibiduoaren aurpegia berregiteko aukera eman die zientzialariei. Eta emaitza harrigarria izan da: begi urdinak zituen, ile beltza eta azala oso iluna. Londresko University Collegeko adituen esanetan, giza azalaren pigmentazio argia uste baino ezaugarri berriagoa dela adierazten du horrek. ■